



Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa.

II. ERANSKINA : Adimen lehiakorra

Urtea :2017 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Enpresen iraunkortasuna bultzatzea adimen lehiakorraren bidez, pertsonen, erakundeen eta inguruaren ezagutza sortzea, partekatzea eta aldatzea ahalbidetuz erabaki estrategikoak hartzeko prozesuetan eragiteko.

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan kokatutako enpresak (2.1 a oinarria)
- Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak eta klusterrak (2.1.b oinarria)

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

- 2.1 a) oinarrian aurreikusitako entitateen kasuan: beraien enpresetan adimen lehiakorreko dinamika esperimentalak sartu eta/edo garatzea;
- 2.1 b) oinarrian aurreikusitako entitateen kasuan: adimen lehiakorraren arloan, enpresei zuzendutako kontzientziazio eta sentsibilizazio handiagoa sortuko dituzten ekintzak garatzea.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.(ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian)

DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

- Kostu hautagarrien % 75eraino dinamika esperimentalak sartu eta/edo garatzeko ekintzetan.
- Kostu hautagarrien % 100eraino kontzientziazio eta sentsibilizazio ekintzetan.

EMATEKO PROZEDURA



Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan nazionala, izan Europar Batasuneko edo izan nazioartekoa, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin

BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2017ko uztailaren 7an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **2017ko urtarrilaren 1etik aurrera**

Proiektuen exekuzio data: **2018ko ekainaren 22a**

Proiektuak justifikatzeko data: **2018ko uztailaren 22a**

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa. II. ERANSKINA - Enpresetan adimen lehiakorraren erabilera txertatu eta sistematizatu.

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/adimen-lehiakorra>
- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

JAKINTZA ETA ENPRESA JARDUERA SUSTAPENERAKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus